

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko martxoaren 17a

Egunkaria

Gehigarri honetan




Lesaka • Mairu taldeak «Triziklo» bere lehen antzezlanaren estreinatuko du bihar.

Iñaki Bergara • «Argazkietan ez dut Ekuadorko miseria aurkeztu nahi izan».

Txantreak

50

• JOSU SANTESTEBAN



Iruñeko Txantrea auzoan sustraiak dituen familia bat, nahiz eta orain Ermitagañan bizi izan, Txantrearaino jaisten da oraindik ilea mozteko. Izan ere, txantrearrek Txantreakoak direlako sentimendu hagitx handia dute. Auzo «gatazkatsua» zela erran zuten batzuek. Haien, aldiz, euren kabuz egin dutela erratea nahiago dute. Lehen etxeak ere euren egin zituzten, auzolanean. Herri itxura eman zieten, eta Txantreak herri izaera hartu zuen. Igandean Txantreak bere kabuz egiten hasi zeneko 50. urtemuga ospatuko du. Zorionak!



Lesaka ●

Mairuren estreinakoa,
'Triziklo' gainean

Fernando Arrabalen lana euskaratu du Lesakako Antzerki tailerrak

1998ko udazkenean sortu zen tailerraren emaitza da bihar estreinatuko den *Trizikloa* lana. Ramon Albisturren gidaritzapean lana euskaratu du Beñardo Goietxe beratarak, eta lehendabizikoz emanen da antzezlan hau euskaraz.



Lesakako Mairu Antzerki taldea antzezlaneko entsegu batean.
● MAIRU ANTZERKI TALDEA

1998 AN LESAKAKO EUSKARA Batzordeak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen jardunaren barrenean, antzerki ikastaroa antolatu zuen. Deialdiari hainbat gaztek eman zioten erantzuna. Pixkanaka taldea ttikitzen joan bada ere, bortz lagunez osatutako talde iraunkorra osatu dute, eta bihar estreinatuko dute euren lehendabiziko lana: *Trizikloa*. Fernando Arrabalek idatzia, Beñardo Goietxe beratarak euskaratu du, eta Mairu Antzerki Taldeak emanen du lehendabiziko aldiz euskaraz lan hau.

Trizikloa lanak arloste edo behartsu batzuen bizipena

kontakten du. Triziklo baten inguruan osatuko dute euren bizimodua, eta hori ordaintzeko beharrak pertsona bat hiltzera eramaten ditu. Eduki soziala daukan lana da, eta gogoetarako deia egiten du, umore ukitu handiekin.

Bortz aktore taularatuko dira bihar, arratsaldeko

20:00etan, Lesakako Irain eskolako gimnasioan: Maite Mindegia, Juanen Saralegi, Ane Otxandorena, Gotzone Rekondo eta Gaizka Sarasola. Hau erran digu azken honek: «Taldearentzat esperientzia polita izan da, eta gustura gaude, nahiz eta talde ttikia izan». Antzezlan baten presta-

kuntza barrenetik ezagutzeko aukera izan dute, eta horretan Ramon Albisturren lana «eskertu» dute. Taldekide guztiak lesakarrak dira, Otxandorena ez berte, Elgorriagakoa baita. Guztientzat ere, lehendabiziko harremana izan da antzerkiarekin, orain arte inork ez baitzuen eduki, hurbiletik ere, horrelako esperientziarik.

«Gorputz espresioa lantzea gogorra izan zen hasieran guretzat, anitz mozten gintuen, baina lotsa gaintzen joan gara. Eszena bakoitza mila modutan antola daitekeela izan da harrigarriena», aitortu du Gaizka Sarasolak. Sarasolak berak landu du ikuskizuneko musika, eta berak jotzen du txistua zuzenean.

Lesakako Udalaren eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntza jaso dute ekoizpenaren gastuei aurre egiteko, betiere Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen diru laguntzarekin.

Oraingoz Lesakako emeraldia eta Berako Kultur Etxean astebete barru (hilarren 25ean) emanen dutena baino ez dituzte aurreikusirik, baina bertze zenbait tokitara mugitzeko asmoa ere agertu dute. Berako emeraldia ere arratsaldeko 20:00etan izanen da.

→ Jon Abril

Zizur

Hiru hitzaldi herria ezagutzeko

SAN FERMIN IKASTOLAK, Nafarroa Oinezen inguruko ekitaldietan, *Zizur Bizi* zikloaren barnean hain zuzen, hiru hitzaldi antolatu ditu «Zizur hobeki ezagutzeko». Antolatzaileen irudikoz, «azken urteotan eraldaketa ikusgarria bizi izan du Zizurrek eta kome ni da horrezaz gogoeta egitea». Ikastolak *Zizur Txikian* du egoitza, baina hitzaldiak *Zizur Nagusian* izanen dira. Herriaren antzinako aipamenak, garai bateko bizimoduak, ingurumenaren erabilpena, toki izenei darien informazioa eta beste hainbat kontu aztertuko dituzte zenbait adituk antolatu mahai inguruetan.

Lehen hitzaldia atzo egin zuten kultur etxean. Roland Jimeno, Joseba Asiron, Kike Diez de Ultzurrun eta Mikel Belaskok *Zizur orain baino lehen* gaia jorratu zuten.

Heldu den ostegunean, 19:30etan, Kultur Etxean *Zizur, lurra eta bere ustiapena* mahai ingurua eginen dute, gaztelaniaz. Joaquín del Valle de Lersundi ingeniariak, Armendariz arkeologoak, Jokin del Valle biologoak, Humberto Astibia paleontologoak eta Mikel Belasko filologoak hitz egingo dute.

Hirugarren solasaldia martxoaren 30ean eginen dute. *Zizur, bizikidetzarako lekua* izanen dute hizpide soziologo batek, arkitekto batek eta bi agintaririk.

→ Asier Azpilikueta

irulegitik

JOJO BIDART



Korsikari bai, Euskal Herriari ez

Zergatik ote korsikarrek lor dezakete hemen Ipar Euskal Herrian amesten ahal ez den egitura politiko bat?

Ez da oraikoa. Orain arte ez da Korsikako lurraldearen ezagutza faltarik izan. Bi departamendu, Eskualde bat eta Estatu berezi bat Iparaldeko kopuru berdintsua duen Korsikako uhartearentzat. Frantziako Estatuaren pean dauden hiru probintzien ezagut lezakeen Euskal Herri departamendu baten eskakizuna jartzaren eta azkenean azkartzen ari den momento berean Korsikako Autonomia indartzeko urratsak egiten ari dira abiadura azkarrean.

Zertan da sekretua? Zoin da errezeta? Arrazoin bat baino gehiago menturaz: uharte bat dela; Korsikako historian oinarritua den autonomiaren legitimitatea; hango kulturaren sustrai-

tua den oldartze usaina eta familia hedatuaren atxikimendua; ondorioz borroka armatuak gizarte parte on batean sortu duen inplikazioa; abertzaleen kopuru emendatzea eta tendentzia ezberdinen arteko tentsio arriskugarrien gainetik finkatu den hurbiltze eta elgarretaritze prozesu emankorra; herri proiektu sinetsuak bat aurkeztea eta debatea gizarte osoan bultzatzea; hortarako jadanik ibiltzen diren egitura politikoetan abertzaleen presentzia segurtatzen duen proportzional sistema izaitzea... Faktore hauek guzkiek eta beharbada beste berezitasun zonalteek ere sortu dukete oraiko egoera.

Ipar Euskal Herria eta Korsikaren arteko diferentziak badaude, bainan parekotasunak ere bai: kultura eta hizkuntzaren aldeko borro-

kak, herri ezagutzaren aldekoak, preso politikoak...

Alta bi jokamolde ezberdin gauzatzen ditu Frantziako poderean dagoen sozialist alderdiak. Haietzat etorkizunerako proiektuei atea zabaltzea, nahiz eta azpijokoak ez diren baztertuak; guretzat ezetza borobila. Zerk egiten du batzuentzat onargarri eta besteentzat beldurgarri?

Korsikarentzat atea idekia da eta ahalbide zorbait agertzen dira: konstituzio aldaketa, erreferenduma. Guri aldiz emaiten daukuten mintzaide bakarria Barne ministroa da. Zerk ditu beldur handienak sortzen? Mendiko Ekaitzak, Itsasotik datorren Enbatak, ala Haize Hegoak? Dena den, atearen zerradura lodienak ere ezin du haizeak dakarren aire berria gelditu.

Leitza ●

Euskararen Tunela gurean

Bihar afaria eta kontzertua egingen dute euskaltzaleak biltzearen

Garai batean Plazaolak zeharkatzen zituen tunelak ziren ezagunak inguru hauetan, baina bestelakoak ere ezagutzeko parada izango da Leitza, Euskal Herrian Euskaraz (EHE) taldearen eskutik iragan asteartetik heldu den igandea arte Euskararen Tunela udaletxean paratu baitute.



EHEren Euskararen Tunela erakusketa, Villabonan (Gipuzkoa). ● AMAIA ZABALO

Anautek, Euskara Zerbitzuko teknikari eta antolakuntza lanetan ibili denetako batek, azaldu duenez, «erakusketa lau gune daude: zibilizazioa, Liburu Beltza, Euskalgintza eta etorkizuneko erronkak». Datorren igandea arte ikusgai egonen den erakusketa eta asteazken eta ostegunean egin ziren hitzaldietan euskararen jatorria, hedadura, euskalkiak, lurraldea eta historiari buruzko teoriak eta mapak azaldu dira.

Azken hogeitun urteetan euskalgintzako talde eta mugimenduek sortu dituzten euskarari buruzko txartel eta

pegatzen erakusketa ere hori da, eta Bai Euskarari ekitaldiaren bideoa ere edozeinek ikusteko moduan egonen da. Orain arte egin diren gauzez hitz egiteko aukera egon den modura, etorkizunerako erronkak ere hizpide dira erakusketa: irakaskuntza, justizia, ofizialtasuna, komunikabideak, plan estrategikoa, teknologia...

Baina, EHEren Euskararen Tunelan, gaurtik aurrera ere hainbat kontu ikusteko, ikasteko eta ongi pasatzeko aukera dago. Hitzordua jarria dago bihar egingen den afari-rako. Afariaren xedea «gizar-

teratzailea» da, Anautek esan duenez, batez ere eskualdeko euskaltzaleak bildu, elkar ezagutu eta harremanak landu nahi dituelako. Horretarako, bertsolariak, trikitilariak eta girorik onena izanen dira. Afarirako txartelak Euskararen Tunelan har daitezke. Gazteentzat ere ekitaldi bat prestatu nahi izan dute, teknikariaren hitzetan: «gazteria baita gizarte esparrurik euskaldunena, eta, beraz, zaindu behar dugu, euskararen egoerak hobera egin dezan». Horretarako kontzertu bikaina antolatu dute larunbat gauerako, Amazabal pilotalekuan. Gaueko hamaiketarik aurrera Etsaiak eta beste bi talde ariko dira (Gaizkiñe eta Sukoi seguruenik). Igandean, berriz, gaztetxoenen gozamenarako, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazok bere emanaldia eskainiko dute, herriko zineman, arratsaldeko bost eta erdiak aldera.

→ Eli Belauntzaran



herri aldizkariak
Miren Iriarte

Lesakako tiralariak nagusi

Ttipi-ttapa aldizkariaren azken alea Munduko Sokatira txapelketari eta bertan nagusitu ziren lesakarrei buruz mintzo da. Aldizkariak esaten duenez, «Nafarroa, Euskal Herria eta Munduan nagusitu dira lesakarrak». Beti Gazte sokatira taldeak bere denboraldirik onena egin du aurtun, **Ttipi-ttapa**ren arabera.

«Nafarroa eta Euskal Herriko txapelketetan jokoan zeuden launa txapeletatik hiruna jantzi ondoren, Munduko txapelketan ere sasoi betean azaldu da Lesakako Beti Gazte elkartearen sokatira taldea. Holandara

joan aitzineko asteburuan, 560 eta 640 kiloko Euskal Herriko txapelak jantzi zituen. Lesakan eta Arronitzan egindako finaletan», azaldu du **Ttipi-ttapa**k.

«Lesakarrak, Euskal Herriko txapelketan egindako lanaren ondotik, moralez gainezka joan ziren Munduko Txapelketara Holandara. Lehen egunean urrezko domina jantzi zuten 600 kiloko kategorian. Azpimarratzekoa da hiru dominak Euskal Herriarri ekarri zituztela, Beti Gazteren ondotik Abadiño eta Torrekolanda sailkatu baitziren».

«Klub artekoan nagusi izan ondotik, nazioarteko txapelketaren txanda izan zen. Euskal Herria ordezkatzuz bertze bi domina ekarri zituen Lesakako taldeak». Azkenean, **Ttipi-ttapa**k esaten duen moduan, Nafarroan hiru txapel, Euskal Herrian beste hiru, eta Munduko Txapelketan bi urrezko domina lortu zituzten lesakarrek. Agustin Zubietta lesakarren entrenatzailea pozik azaldu da lortutakoarekin, «baina berriz ere hori errepikatzea ez da bate-re errexa izanen»; esan dio **Ttipi-ttapa**ri.

%100

Telebistan «popularren» emaitza ikaragarriak ematen ari ziren. Kolore guztietako politiko-koen adierazpenak pantailarazten zituzten: alaiak, neketuak, etsiak. Umoretsuak gutxi. Eta hara non Iruñeko Labrit pilotalekuarekin konexioa egiten duten eta Arnaldok esaten digun «Iparraldean ehuneko ehuna» izan dela abstentzioa. To! Ehuneko ehuna!! Hori da arrakasta izatea hori! Egia! Ehuneko ehuna! Zer ostias! Gero Munduko Atlas hartu eta gau guztia eman nuen garaipenaren geografia erreparatzen: Madagaskar (%100), Tibet (%100), Laponia (%100), Austria (%100), Philadelphia (%100), Uruguay (%100), Uganda (%100). Ehuneko ehuna! Ezta boto bat bera ere Madrilerako! Boikota! Intsumisioa! Ikurrinaren astinduak. Oe oe oe!! Oe!! Oe!! «Ze kabroiak» —pentsatu nuen gero— «ez dute leku horietako irudi bat bera ere eskaintzen!!!». Zaping egin nuen. Keba. Ezta bat ere!! Kate orotan Nafarroako portzentaiak ematen zituzten, Nafarroan botoen erdiak PPkoak zirela esaten zuten, baina Hegoafrikan izandako porrotaz ez zuten hitz erdirik ere egin. Nire hitza Costa Rica gainean pausatua nuen, baina telebistan Del Burgo besterik ez nuen ikusten: «Ahantz bitez Euskal Herriaz», esaten zuen, «aurretik ametsa zena orain horretara ere ez da ailegatzan. Gora Nafarroa, gora Espainia». Haren jarratzaileek txaloka eta oihuka ikusten nituen, niretzat jarrera guztiz ulergaitza izan arren. «Hauek oraindik ez dira jabetu Japonian erabat hutsik geratu direla hautestontziak», pentsatu nuen. «Etorriko dira gero negarrak». Baina ez. Gero etorri zena nire adiskide bat izan zen. Iparraldeko emaitzak eman nizekionean erabat harriruta begiratu zidan. «Xabi, Iparraldean Frantziako hauteskundeetan bozkatzan dute!». «Boto guztiak abertzaleak izango dira, ez?», galdetu nion. «Ez, motel! Hor ere gehienek Parisi ematen diote botoa!». Aibalaostia! Ez nuen tutik ere ulertzen. «Baina Arnaldok...», saiatu nintzen. Adiskideak isil-isilik begiratzen zidan, esan behar nuenaren zain. «Baina... Peru, Colorado, Pakistan...», xuxurlatu nuen. Adiskideak eskua sorbaldean jarri zidan. Ez zuen hitzik egin. Telebistan Carlos Iturgaitzen aldeko oihuak ematen ari ziren: «Lehendakari!, lehendakari!». Munduko Atlas itxi nuen. Garaipenaren geografia hutsala airean desagertu zen bat-batean. ●

Herria hiriaaren barnean

Txantreak bere kabuz egiten hasi zeneko 50. urtemuga ospatuko du igandean

1950eko martxoaren 19an Iruñeko Txantrea auzoko lehen herria paratu zuten hainbat agintaririk. Han izan ziren apezpikua, alkatea, Gobernu ordezkaria, diputatuak, militarrek, enpresariak eta beste. Orduko egunkariek bi paragrafo malapartatu zituzten haien guzien izenak aipatzearen. Igandeko bestan ez da agintaririk izanen. Herriak ospatuko du urtemuga, Txantreako herriak.

TXANTREAKO JAI BATZORDEKOAK IAZ konturatu ziren auzoak berrogeita hamar urte beteko zituela. Ospakizun berezia zenez, batzorde berezia sortu zuten, Txantrean batzordeak sortzeko dagoen joerari jarraikiz. Jesus Palacios, Sidras, urtemugaren ospakizunerako jai batzordeko kidea dugu. «Kolektibo, elkarte eta talde guzien atea jo dugu», azaldu du Sidrasek. «Jaietan egin ez ditugun gauzak egin ditugu orain. Ospakizuna ahalik eta zabalena egin nahi genuen. Eta erantzuna ikaragarria izan da. Oso jende guti geratu da kanpoan».

Francisco Franco Patronatua

Zer ospatu baina? Bada, duela berrogeita hamar urte nekazaritza munduan goseak egon behar izan zutenek hirietara emigratu zuten lan eta etxe bila. Iruñera etorri zirenak hartzearen, Txantrea izeneko iparreko lur sailan 200 bat etxebizitza eraikitzeke plana osatu zuen Francisco Franco Patronatua. Etxea egiteko lur zatia Udalak eman behar zuen, dohainik; egurra Diputazioak jartzen zuen, eta Patronatuak materialak eta altzariak banatzen zituen (44.000 pezetako gasua familia bakoitzeko). Etxe horiek gero okupatuko zituztenek eraiki zituzten. Hala-beharrez, euren lanordu «normalaren» oste-

an, egunero lau ordu eman behar zituzten etxea eraikitzen. 1950eko martxoaren 10ean hasi ziren lanak, eta bederatzigun gutiago paratu zuten lehen herri sinbolikoa. Eta 1952an Franco diktadorea auzo berria izan zen hura inauguratzeko.

Txantreako bizilagunek euren etxeak egite horrek auzoaren izaera markatu duela uste dute askok. «Igandeko bestera ez da agintaririk etorriko, 50. urteurrena ospatu behar duena auzoa delako, Txantrea bere kabuz egin baita urteetan», azaldu du Sidrasek. «Erakundeek beti ahaztu dute Txantrea. Horregatik ez dugu nahi erakundeek egun honetan batere protagonismorik izatea. Protagonismoa auzoarena da. Eta ez diogu protagonismorik eman nahi hemen inolaz agertu ez den jendeari».

Igandeko ospakizunerako egitarau zabala osatu dute auzoko taldeen indarra soilik erabiliz. Txantrean Auzolan aldizkariak zerbaki berezia argitaratu du, Txantreako historia kontatuz. Gainera, bost erakusketak antolatu dituzte Auzotegin (Auzoko artistak). Ama Saletarretan (Txantreako argazki zaharrak) eta Osasun Etxean (40 urtetan auzoa mendian, Osasun Etxeko Lehen Laguntza taldearen artikulua eta argitalpenak eta Hesirik gabeko auzoaren alde). Hori dena, nolabait errateko, do-

hainik da: hau da, talde eta kolektibo bakoitzak berea ordainduko du. Oroigarriko plaka eta publiziterako 300.000 pezeta Eroskik jarri ditu, bera izan baitzen auzoan lehen merkaturatu zuten enpresa.

Txantrea herria

Duela berrogeita hamar urteko lehen fase hartan eraiki zituzten etxeak Felix Plazaren inguruan daude, Federico Mayo, Lucio Arrieta, Andres Gorritxo, Marcos Goñi eta Beorlegi karraketan. «Ni bigarren faseko Mario Rueda karrikan bizi naiz», dio Sidrasek. 41 urte ditu, eta gurasoak Zaragozako herri tiki batekoak ziren. Euren ere beren etxea egin zuten: «Txantrearek euren etxeak egin zituztelako, auzoa bere kabuz egin zen», azaldu du Sidrasek. «Herrietako jendea da, eta herrietako etxe motak egin zituzten. Hortaz, herri bateko bizimodua ekarri zuten hona. Oraindik ere kalera ateratzen dituzte aulkiak solasean aritzeko. Herria da hiriaaren barnean».

Txelo Pagoietak ere badu Txantrea herria delako irudipen hori. Aitari egin nahi zion omenaldi gisa, duela sei bat urte hasi zen lehen faseko karraketan bizi direnen anekdotak eta bizipenak etxek etxe biltzen. «Oso harreman ona zuten euren artean, bizilagunen arteko elkartzuna handia zen. Horretan bat


Jesus Palacios, Sidras:

«Erakundeek beti ahaztu dute Txantrea. Horregatik ez dugu nahi erakundeek urtemugaren ospakizunaren batere protagonismorik izatea. Protagonismoa auzoarena da»



Txantreako karrika zaharretan dabilen edon ezin uka dezake auzo herria dirudiela. 1952an irudian ageri den balkoia, Franco diktadoreak, herri batego alkatea balitz bezala auzoa inauguratu zuen.

JOSU SANTESTEBAN



Auzolanean

Txantreako bizilagunak izanen zirenak 15-20 lagunetako lantaldeetan banatzen ziren etxeak egiteko. Etxe multzo bat bukatzen zen bakoitzean, zozketa egiten zuten langileen artean etxebizitzak banatzeko. Horrela sortu zen Txantrea. Bertako aldizkariak Txantrean Auzolan izena izatea ez da kasualitatea, ezta txantrearek gehienek duten bertakoak izateko sentimendu handia ere.



Dagoenean bonbon

Txantreako lehen faseetarako etorri zirenak gabezia handiak izan zituzten. Angeles Cabezon andreak gogoratu duenez —Lerindik etorria bera—, lehenengo Eguberrietan sardinak afaldu zituzten senarra eta biok. «Ez genuen deus ez», erran du. «Etxea berotzea asko kostatzen zitzaigun, miseria handia pasatu genuen. Orain, Jainkoari eskerrak, oso gustura gaudete hemen eta ez gaituzte hemendik aterako». Igandeko herri bazkarian kontu zahar horiei buruz hitz egiteko aukera izanen dute txantrearrak.



Txantreare bat

«Erraten dena baino etorkin gutiago daude Txantrean», adierazi du Jesus Palacios Sidras-ek. «Lehenengo hiru faseetako bizilagunen %80 Nafarroako hainbat herritatik etorri ziren. Hurrengo faseetan jende gehiago etorri zen Espainiatik, are gehiago Orvina egin zituztenean. Baina Txantreako bizilagunen hiru laurdenak nafarrak dira jatorriz. Kontua da Labrit aldapan ¡A Cadiz! (Cadizera!) kartel hori jarri, eta urte askoz egon zenez, jendeak ideia okerra duela». Irudikoa Segovian jaiotako txantrearra dugu.

datoz denak», dio Txelok. «Hau herria zen. Udan, gauean, jendea aulkiekin ateratzen zen kalera, eta lagunarte handiak sortzen ziren. Oso baturik zegoen herria».

Andres Gorritxo karrikako etxe berean bizi da oraindik Txelo, eta 47 urte betetzear dago. Lehen urteetan Txantrean gabezia handiak izan zituztela dio Txelok. «Ez genuen deus, irudimena besterik ez, eta gabezia ekonomi-

ko eta sozial horrek batu zituen txantrearrak». Bere bizilagunen artean inkestak egin dituelarik, Txelok ikusi du nola denek gorripatu duten euren arteko harreman ona. Txelok ere arras oroitzapen onak ditu: «Jostailurik ez genuen, baina bai irudimena. Komeditan jokatzeko genuen, eta pote-potean. Eta mendia ondoan genuen. Txantrea beste mundu bat zen. Zoriontsuak izan ginen. Ho-

regatik identifikazio sentimendu handia dugu txantrearrak».

Telebista etxetara sartu zenetik herriko bizimodua hori galdtu egin zela dio Txelok: «Den dena dela, egun ere oso harreman ona dugu hermen bizilagunen artean, ia anaia-arrebak gara».

→ Asier Azpillikueta

Txantrearen 50. urteurrenaren egitaraua

Martxoak 19

- Goizez:** Santa Mariako auroroen emanaldia. Gaita jole eta txistularien dianak. San Jose errondalaren emanaldia. Arriurdineta plazan Nafarroako artzau-produktu ekologikoen feria. Garazi txarangaren laguntzaz. Hamaiketakoak Piramideen plazan, Arriurdineta plazan eta II. Orvina plaza.
- 11:00:** Dantzaldiak Piramideen eta Arriurdineta plazatan.
- 12:00:** Txantrea eta Saniduzelako erraldioen konpartsak Felix plazatik aterako dira. Meza eta San Jose abesbatzaren emanaldia San Jose parrokiaren.
- 12:30:** Txantrea abesbatzaren emanaldia Osasun Etxean.
- 13:00:** La Pamplonesaren emanaldia Ama Saletarren aretoan.
- 13:30:** Urtemugaren omenaldi ekitaldia Federico Mayo karrikako lehenengo zenbakian. Aurrekua eta jeteroak.
- 14:30:** Herri bazkaria Txantrea K.E.an.
- 17:00:** Txantreako eta Osasunako beteranoen arteko futbol partida Txantrea K.E.an.
- 19:30:** Talde sorpresa baten kontzertua Akelarre Tabernan.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Argazkilari zahar baten inguruan

Mende hasierako Nafarroan ateratako argazki asko eta asko nafarra ez den egile batek eginak dira, Santa Maria Villarko markisak alegia. Halaz guztiz, eta nafarra ez izanagatik ere, nafarron ohitura, izaite eta arima maisuki harrapatu zituen madrildar honek, eta bere argazkiak, bene-benetan ikusitako uneak bailiran, gure barne gogoan iltzaturik ditugun historia eta lurraren pusketak bilakatu zaizkigu.



Diego Quiroga Losada, Santa Maria Villarko markisa zena, 1880ko abuztuaren 18an jaio zen, Madril. Gora haundiko aitonen semea izanki, Alfonso XIII.a erregearen gortean pinpirrin ibili zitzaigun akodin astunegirik bete behar izan gabe, arbi lorea baino lasaia, errege beraren asteko zerbitzariarena egokitu zitzaioneko astintzearengatik ez bazen. Gortean berean hasi zen argazkiak ateratzen, eta garai hartako bilduma bitxia bada. Penintsulako geografia ongi baino hobeto ezagutzen zuelako, 1927an sortu berri zen Turismo Patronatuaren lehenbiziko lehendakari izendatu nahi izan zuten, alabaina, lan gehiegi zitekeelakoan edo, gorki aisa errefuxatu zuen ohoramenduzko betekizuna, eta 1975ean zendu zen arte, argazkiak egitea beste zereginik ez zuen izan. Dena dela hasiera batean denbora-pasa zena ogibide bilakatu zitzaion neurri haundi batean gerratearen ostean, bada, 36koarekin bere ondasun ugari nasai-ki ondatu baitzitzaizkion, eta ateratzen zituen argazkiak argitara ematen hasi behar izan zuen, argazki soilak batzuetan, iruzkin goxoekin beste zenbaitetan. Orduan izan zen Lurralde Suntsituen Departamendu Fotografikoaren zuzendari sartu zenean, 1961era arte kudeatu zuen erakundea. Bere bizitzaren azken urte haietan Donostia-ko Mirakontxan bizi izan zen, eta hantxe zendu zitzaigun 1975eko maiatzaren 18an.

Santa Maria Villarko markisak eginiko argazkigintza *argazki turistikoa* deitu izan da. Alde batetik nabarmentzekoa da XIX. mende bukaeran hasi zela argazkiak egiten, eta horrek berebiziko eragina izan zuen ondorengo lanetan,

1899an sorturiko Madrilgo Elkarte Fotografikoaren barruan indarrean zegoen teknika piktorialistari jarraituz. Bestalde, eta mende hasierako argazkigintzan horren arrakastatsua gertatu zen esperimentazioaren bidetik abiatu gabe, Quiroga Losadari ez zitzaion horrenbeste interesatu piktorialista sutsuek aldarrikatzen zuten errealitatetik hastantze hura, eta argazkiak ateratzeko bilatu baldintza zehatz eta bereziak gorabehera, errealitatea bere-berean ematea zuen kezka nagusi. Markisaren argazkigintza ikergai izan duen Jorge Latorrek esaten zuen legez, markisaren lana *dokumentalismo naturalista* dugu.

Nafarra ez izanagatik ere, Nafarroarekin zituen loturak ez ziren hutsalak izan; bere amonak La Manchega izeneko etxea zuen Allon, karlistaldian odol ospitalea izan zena, eta hara joan zen estrainekoz 10 urterekin, orduz geroz mahats biltzero bertaratzen zelarik. Nafarroa bereziki gustokoa zuen, eta bai oinez, bai txirrindulaz, motoz edo kotxez kurritu zuen goitik behera eta alde alde. Burutu zuen bidaiarik apaigarriena, ordea, Urzainkitik Tortosaraino almadiaz 1903an eginiko jeitsiera da; bestalde, Santio bidea behin baino gehiagotan ibilitakoa genuen. Nafarroako zonalderik kuttunenak Pirinioko haranak zituen, eta Nafarroan egin zituen argazki guztietan Eskako almadienak. Orbaiztako eul-

tziazenak, eta Arbaiungo arroilarenak goraki nabarmentzen zituen beti —esan gabe doa aipatu azken sail hura atera ahal izateko ia-ia amildu zen—. Aipatzeko modukoak ere Ventosako kontea bidaide zuela 1910ean eta 1920an eginiko itzuliak dira. Lehenbiziko urte hartan Iruñetik Kinto eta Erroibar aldera Esteribarren barna, eta Erronkari ibaxara bi txango burutu zituen, eta haietan argazki aunitz atera zituen arren, gutxiz gehienak 36koan galdu ziren. Aipatu 1920ko itzulia Auriztik Otsagira Iratin zehar eginikoa dugu, eta orduan atera zituen argazkietan Aezkoako jendeak, Iratiko basomutilak eta Irabiako uharka ikus daitezke.

Santa Maria Villarko markisaren lana hala edo nola goraiatu bada ere, bere ekarpena Nafarroan bereziki aintzat hartu izan da. Hil hurren zegoela, Iruñeko Elkarte Fotografiko eta Zinematografikoak kaleratzen zuen boletinaren zenbaki berezia markisaren lana aztertzeko apailatu zuen (1973ko irailekoa); Nafarroako Aldundiak pertsonalki eskertu zion ABC egunerokoa 1970ean argitara emaniko *El Pirineo Navarro* artikulua idatzi izana; eta hil ondoren bere argazkiak erakusten zituen erakusketa Nafarroan bakarrik antolatu zen. Bestalde, Nafarroan eginiko argazkien antologia bat eman zuen argitara Principe de Viana erakundeak 1982an, *Fotografías de Navarra*, Francisco Javier Beunzak eta Carlos Canovasek apailatuta, eta Julio Caro Barojak eta Jesus Elosegik iruzkindua.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Goizueta aldeko enfatikoak

Aurreko batean jasotzen Orotariko Euskal Hiztegiaren XII. tomoa (Mak-Oal). Apoaren liburugatik aipatzen da nere izena hiztegi horretan, eta kasik merezi gabeko ohoretzat hartua daukat detaile hori. Baina, ez da hori kontua. Ez baitut uste Apoarena denik libururik aberatsena beure usarioko hitzen edo esaeren altxor aldetik. Konparazio batera, Marasmus Femeninus liburuan, batez ere gutun bakoitzeko hasierak eta akaberak, eginen nuke askoz aberatsagoak direla. Baina tira, ekar ditzadan gogora, bietan ere, oharkabean pasa diren esanera enfatiko batzuk, Goizueta aldeko usuario aberatsetik neureganatuak:

HURA ORDU ETA HURA MUGA: Aspaldi haundian nere belarrian jo gabea bada ere, hamaika aldiz aditua daukat umetan, eta nolabait esan, kontakizun batean, ohitera edo portaera baten aldaera bapateko eta erabatekoa eragiten duen gertakari baten ondotik dator, askotan esaldia gehiago indartzeko «akabo!» lokuzioa aurretik duela. Honatx adibide batzuk: «San Ferminetako ferizale amorratua zen, baina, Iruñera bidean San Ferminetara zihoala hil zitzaion alaba; eta akabo!, hura ordu eta hura muga, gehiago ez zuen San Fermin konturik aditu nahi izandu». «Lehen beti hemen izaten zen, baina Pazko egunean haserretu egin zen gure agure honekin, eta hura ordu eta hura muga, geroztik ez du hankarik paratu etxe honetan». Apoaren Harripiletan ageri den lokuzioa duzu, baina, OEHan MUGA begiratu, eta ez da ageri. ORDUan akaso?

NOSKIXEAGO ERE: Goizuetarren ahotan «noskixio're» aditu izan dut beti. Erdarazko «Dice(n) que...» kutsua du, baina, betiere murmuraziozko, gaizki esandako, haserrezko, gezurrezko edo gehiegikeriazko esanen aurretik ipintzen da, eta bi hiztunek hirugarren

baten esanak ahotan dituztenean. Belarria dut honetan ere testigu bakar: «Noskixeago ere, euskaldunak ez omen gaituk tripero astazakil batzuk besterik, eta gurekin ez dagoela kontatzerik, eta... zer gehiago ez zituen esan ordea, maketo ahozabal urde horrek». Beste bat: «Emakumeak ez omen din noskixeago ere, ez sukaldetik ateratzeko deretxorik, ez kalean musuka aritzekorik, ez larunbatetan porai desgaraian ibiltzekorik... denak holaxeak bota zikinan, otsozakur zar horrek, mende hasieran nuke askoz aberatsagoak direla. Baina tira, ekar ditzadan gogora, bietan ere, oharkabean pasa diren esanera enfatiko batzuk, Goizueta aldeko usuario aberatsetik neureganatuak:

IUÑEKO DENAK (GUZIK): Ez dakit seguru sorrera non duen esanera horrek; ez baitut uste «iñon deneko, iñon ereko, nihunereko» edo «gisakoren baten kotrazioa denik, edo bai? Ala «rudieneko» agian? Azkeneko era honetara erabaki nuen Marasmusean. Dena den, Xubiri doktore filologoak deituko ahal dit alderdi hori argituz. Esanera honek, erdarazko «Absolutamente todos» edo gisako zentzu enfatikoak luke, baina nolana deklinante liteke: «Iuñeko denatan, Iuñeko guzikin»... Honetan ere, adibide batzuk parako dizkizut, umetako belarria lagun: «Eltzeka baba atere, ta iuñeko dena limpio, bakar bakarrik gizonak!». «Yende pill erra bayuen ataurren, biño, atzeneko an sartu ittuen iuñeko denak».


Eta nere belarriaz ez ledina fio, zinezko Goizuetarren bati galde bekio. Hiztegiak, entziklopediak bezalatsu, hizketaren panteoi dotoreak besterik ez baitira.

Ziria

• Motxorrosolo •


Sinesten dut

ERAKUTSI DIGUTEN FEDEA EZ DA NOLANAHIKOA. URA ARDO gisa eskaintzen digute, eta sinesleak andana dira. Urteek ozipina gozo bilakatzen. Fededunak ez dira urri are-rio dituztenen artean. Besteen gisan, tinko eusten diete berezko sinesmenei. Alta, fedea zabaltzeko haien esku den egitura inoiz baino indartsuagoa da, eta guk jakin ez.

Iñaki Bergara  Argazkilaria

«Argazkietan ez dut nahi izan Ekuadorko miseria aurkeztu»

Iñaki Bergara argazkilari iruindarra Ekuadorren izan zen 1998ko udan, Manabi eskualdean. Bertakoak laguntzera joan zen eta ikusi zuenaren argazkiak egin zituen. Horietako hogeita hamar Maisonnave hoteleko Iruña fotogalerian paratu ditu.



UXUE MONTERO

soslaia

Iñaki Bergara Perez Donostian-jaiotzen duela 25 urte, baina laster ekarri zuten Iruñera. Arrotxapekoa dela dio eta harro adierazi du auzoko Ezkaba aldiakarian kolaboratzen duela. EGUNKARIA, Gara eta Diario de Noticias egunkarietan ere kolaboratu du. Egun Donostian Argazkigintza estudiatzen ari da, hirugarren urtean.

Bergarari argazki klasikoak gustatzen zaizkio. «Ez dut gauza arraroekin esperimentatzen», erran du. «Argazkiak suntsitzea edo muntaiak egitea ez dut atsegin».

Bere argazkiak, apika, lehiaketetarako klasikoegiak direla dioen arren, honako sariak irabazi zituen iaz: sari berezia Udalaren Iruñeko Txokoak lehiaketan; lehen saria Donejakue Bideko rally fotografikoan; eta lehen saria Burlatako lehiaketan.

EKUADOR, ISTORIO TTIKIAK IZEN- buruko erakusketan atzo inauguratu zuen Bergarak eta apirilaren 6a arte izanen da ikusgai.

■ Zer ikus dezakegu erakusketan?

Erakusketak hiru zati ditu. Lehenengoan oilarren borroka ikus daiteke, txuri-beltzean. Bigarrenean, platanoa biltzeko lan gogorra. Azkenik, hirugarrenean, Manabiko hainbat aurpegi bildu ditut, mendialdekoak zein kostaldekoak.

■ Zertara joan zinen?

Arrotxapeko Manabi taldearekin joan nintzen hangoak laguntzera. Laguntza hori norberak egiten dakienaren arabera ematen da. Nik hitzaldiak ematen nituen, baita argazkiak egin ere. Hitzaldiak elkartasuna, osasuna, taldeen batasuna, autoestimua eta

antzeko kontuen ingurukoak ziren eta, batez ere, emakumei zuzendurik zeuden, gizarteko pertsona zapalduenak baitira. Argazkiak egin nituen gero, han nola bizi diren erakusteko hemen.

■ Zer lortu nahi zenuten?

Gure helburu nagusia zen manabitarrak elkarrekin gauzak egitera bultzatzea. Lan zaila zen. Adibidez: azokara hiru lagun jaisten dira zereal mota bateko hainbat kilorekin, bidea elkarrekin

egiten dute, baina gero bakoitzak bere kabuz saltzen ditu merkatuan. Kontua da hirurak elkartu eta kotxea hartuz gero, lortzen dutena halako bi eskura dezaketela ondoko herrian. Baina barruraino sartuta dute bakoitzak berea lortu behar duela eta elkarrekin aritzea ez dela ona. Ziria sartzen ari zaizela eta dauden egoeratik atera daitezkeela erakusten saiatzen ginen.

■ Zer nolako egoeran bizi dira?

Manabin populazioaren

%63k deus guti dute, eta horren %23k, deus ez. Ni egon nintzenean, dolar batengatik 3.600 sucre ematen zizkizuten. Orain 25.000 sucretan dago dolarra. Merkatua dolarizatu dute, baina herri xehea suerekin utzi dute, hau da, deus gabe. Dirurik gabe bizi direla erran daiteke. Horri aurre egiteko denda solidarioen sarea sortu du Pastoral Social izeneko talde batek [hemengo Caritasen antzekoa]. Taldearen barnean dauden emaku-

meak maileguak eska ditzakete proiektu ttikiak egiteko. Adibidez, Pastoral Sozialak oilaskoak erosteko dirua ematen du, eta gero oilaskoak saldu edo jaten dira. Batzuk oilaskoekin hasi ziren, artoarekin jarraitu eta orain behi edota txerriekin daude. Hor ikusten da jendea deus ez izatetik zerbait izatera pasatu dela. Funtzionatzen duen lana dela ikusten da. Joan nintzenean, talde horietan 2.000 emakume ari ziren eta orain, 4.000. Sarea zabalduz doa.

■ Argazkietan hori ikusten da?

Beno, ez dut nahi izan hango miseria aurkeztu. Erakusten ditudan istorioek ez dute penarik ematen. Nahiz eta miseria bizi, manabitarrak euren bizitza dute. Adibidez: dirua duenak txalupak alokatzen ditu. Arrantzaleek arrantzatzen dutenarekin ordaindu behar dute gasolina eta txalupen alokairua. Baina kontua da harrapatutakoa txalupen jabeari saldu behar diotela, berak duela kamioi hozkailu bakarra. Honela bada, azken honek markatzen ditu prezioak, eta beti irabazten du. Argazkietan hori ez da ikusten. Pastoral Social taldeak txalupa batzuk ditu eta beharren arabera uzten ditu. Arrantzaren saltzarekin lortzen den %20 taldeari ematen zaio eta beste guziaz arantzaleen artean banatzen da. Orain kamioia erosi nahi dute. Hori lortzen denean, diru anitz aurreztuko dute arrantzaleek.

→ Asier Azpilikueta



NOSKI JATOR NEOLITIKOAN

NEOLITIKOAN
IGAROTZEKO
BENETAKO ARRAZOIAK



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Nafarroa ongi doa (peperoentzat)

Edo hala ematen du behintzat. Kazetari soila naizenez —edo zehatzago: soilten ari den kazetari soila naizenez— ez naiz soziologoez eta are gutxiago «adituek» beren gain hartzen dituzten lanetan hasiko. Baina bat-bateko gogoeta batzuk botako ditut, besteak beste zutabe hau bete egin behar delako.

Batzuk izutu egin dira igandeko hauteskundeetako datuok ikusita, batez ere eskuinak eta eskuin muturrak izan duten gorakada handia dela kausa. Oraingo, Estatu espainiarra ez da Austria, eta Aznar, saiaturia ere, ez da Haider, baina —nire uste apalean— Europar Batasunak gertutik jarraitu behar du hurrengo urteotan bai Nafarroan bai Euskal Herriko gainontzeko lurraldeetan gertatu ahal dena. Izan ere, Mayor Oreja eta Del Burgok uste badute lortutako emaitza euskal matxinatuen kontrako borrokan erakutsitako jokamoldeagatik izan dela, sasoi latzak baino ezin ditugu espero.

Peperoez hauteskunderik gabeko hiru urte dituzte, gehiengo osoa parlamentu espainiarrean eta gehiengo osoa botere mediatikoen arloan; hortaz, edozein gobernu edozein arazo zail behingoz konpontzen hasteko nahiko litzuzkeen baldintzak. Baina peperoena ez da «edozein» gobernu eta espainiarrek euskaldunekin duten gatazka ez da «edozein» arazo. Horregatik, begi aurrean dugun panoramak ez du epe laburreko itxaropenerako tarte handiegirik uzten.

Eskuinaren nagusitasuna are gehiago areagotu da Nafarroan. PP-UPNk lortu dituen botoei PSN egiten ari den politika eskuindarra babestuz dutenenak gehitu beharko litzazkiekelako: %75 inguruk bozkatu du eskuinaren alde.

Eskerrak portzentaia hori bozkatu dutenen artekoa den, beste askok ez bozkatzearabaki zuelako; horietako gehienak ez soilik abstentzioaren aldeko gonbitari men eginez, baizik eta alderdi nagusiek parte-hartzearen alde egin duten kanpaina gogorrari muzin eginez. Politikari gehienek kanpaina esan zuten moduan bozkatu ez izanak ETari babesa ematea bada, kezkatzeko arrazoi franko izan beharko litzuzkete.

KONTZERTUAK

- **Hazparne:** PILT gaztetxean izanen da bihar, 22:00etan.
- **Tutera:** Su Ta Gar taldea Elola kiroldegian ariko da bihar, 22:30etatik aurrera.
- **Gartzarun:** Esan-Erran irratiaren alde, bihar gaupasa izanen da, Etxakit taldearekin, frontoian, gaueko hamabietatik aurrera.

BERTSOLARIAK

- **Erratzu:** Bertsolari txapelketaren bigarren kanporaketan, gaur, 21:30etan, Etxeleberteko Txokoan, Amets Arzallus, Mikel Altxuart, Txomin Ezponda, Fermin Mihura, Jean Louis Laka eta Ekiñe Etxepeteleku lehiatuko dira. Bertso afarirako txartelak Xorroxin irratira deituz eskura daitezke.
- **Betelu:** Bihar, 21:00etan, Zigari elkartearen, Oskar Estanga, Jon Arregi, Aritz Saragueta, Nerea Bruño, Joxe Juan Zubieta eta Xabier Terreros ariko dira, Bertsolari txapelketaren hirugarren kanporaketan.

HITZALDIAK

- **Burlata:** Gaur Josu Amezaga EHUko irakasleak *Euskal kultura eta kultura popularrak* hitzaldia emanen du Axular kultur elkartearen, 20:00etan.
- **Iruñea:** Astelehenean, Bea Arana ikasleak *Garapen basatiaren kontrako herri mugimenduak herri garratu gabeetan* hitzaldia emanen du Arturo Kampionen, arratsaldeko seietan.
- **Iruñea:** Asteartean, Alicia Stürtze historialariak *Imperialismoa eta balore aldaketa egungo gizarteetan* gaia jorratuko du 20:00etan Euskal Jai gaztetxean.

gure aukerak

- **Iruñea:** Asteartean, Xabier Mendiguren idazle eta itzul-tzaileak euskaratu berri duen Robert Laxalten *Kafea hartzea Iruñean* izanen du hizpide. Hitzordua 20:00etan da, Erraldioen Txokoan.
- **Iruñea:** Asteazkenean, 20:00etan, Zaldiko Maldiko elkartearen, Josu Zabalak —Hertzainak taldeko kide izandakoak— euskal rockaren inguruko hainbat kontu aipatuko ditu.
- **Iruñea:** Ostegunean, Alarcon madrildarrak publizitate subliminalaren eta ideologiaren inguruko tailerra zuzenduko du 19:00etatik

aurrera Euskal Jai gaztetxean.

- **Etxarri-Aranatz:** Ostegunean Sakanako inauterietan buruzko diapositiba emanaldia eskainiko dute kultur etxean, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Bera:** Hilaren 26 arte *Enbutua: Panamako adin-ttikiko- endako kartzela bateko argazkiak* izeneko argazki erakusketa izanen da kultur etxean.

ZINEMA

- **Iruñea:** Gaur, Karrikiri el-

karteak antolatutako *Zinema euskaraz* zikloaren baitan, *Angus* filma emanen dute. Aurretik, Asier Altuna eta Telmo Esna-len 40 ezetz film laburra emanen dute. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izanen da, Golem zinematokietan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** III. Hamabostaldi Antidesarrollistaren barnean, gaur sagardo jaia egingen dute Euskal Jai gaztetxean, 600 pezetaren truke. Hargia norberak eraman behar du.

JOXE LACALLE



Bukatu da...

Akabo. Hondoa zazpi solairu beheitiago dago. Gureak egin du. Tunelaren bukaerako argia itzali dute. Lau urteko kanpainaren ostean, batek baino gehiagok atsekabez ikusi du nola bere herrian, idealizatuta duen horretan, zentrotik eskuinera doazenak gailendu diren. Baina, baina...! Hauteskunde datuen espiralean zorabiatu dira, goitika egitear daude. Hondora begira eta zulo estua bertzerik ez dute ikusten. Lasai. Egunero irudiko eskailera kiribila igotzen duen Nafarroako Aurrezki Kutxako egoitza nagusiko langileak ederki daki, nahi izanez gero, goian segituan izateko igogailua har dezakeela. Gakoa igogailua konpontzean datza.